

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****BERANTEVILLAKO UDALA****2021eko irailaren 14ko jakinarazpena, udal biztanle erroldan ofizioz baja ematen duen prozeduraren berri ematen duena**

Espedientea. BP 2/2021

Ondoren adierazten den pertsonari, saiatu arren, ezin izan zaionez jakinarazi udal honek jakin duela ez dituela betetzen Toki Erakundeen Biztanleen eta Lurralde Mugaketaren araudia onesten duen uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren 54. artikuluan xedatutakoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 44. artikuluan ezarritakoa betez, hau jakinarazten zaio:

NORTASUN AGIRIA	KONTZEJUA
X2502960P	Berantevilla

Udal honetako alkateak, irailaren 14ko 115/2021 Dekretuaren bidez, ebazpena eman du, Berantevillako udalerrian ohiko bizilekua ez izateagatik biztanleen erroldan ofizioz baja emateko.

Ediktu honen bidez entzunaldiko izapidea jakinarazten dizugu, 15 eguneko epea izan dezazun, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, udaletxe honetako bulegoetan agertzeko, 09:30etik 14:00etara, espedientea aztertzeko, baja horrekin ados zauden ala ez adierazteko, eta zure bizilekua zein den frogatzeko aurkeztu nahi dituzun alegazioak, dokumentuak eta justifikazioak aurkezteko. Ohartarazten dizugu ezen, epe horretan erantzunik ematen ez baduzu, espedientea izapidetzen jarraituko dugula eta baja emango dizugula ofizioz Berantevillako Udaleko erroldan.

Berantevilla, 2021eko irailaren 14a

Alkatea

MARIO PEREA ANUNCIBAY